astiberri

6 URTETIK AURRERA



PIN, PAN ETA PUN

Gidoia eta Irudiak: **AtOLOnia**
Itzulpena: **Bego Montorio**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2026
Kolorea. Paper-azala azal-hegalekin
96 orrialde. 17 x 21,5 cm. 14 euro
Txikiberri bilduma
ISBN euskera: 978-84-10332-92-8

APIRILAREN 2AN SALGAI

AtOLOnia ilustratzaile, animatzaile eta umeentzako liburuen egileak komiki **atsegin** eta **dibertigarri** bat proposatzen digu, **akuarela** eta album **ilustratuen** hizkera baliaturik

Askatasuna deskubritzea

Pin, Pan eta Pun satitsu bat, laborategiko sagu bat eta hamster bat dira, eta sartuta dauden kaioletatik ateratzea dute desirarik handiena. Giltzapetuta bizi izan dira beti, eta denbora horretan ezohiko gaitasunen bat garatu dute. Huts egindako saio batzuen ondoren, kanpoko mundura heltzea lortuko dute. Behin kanpoan, ordea, gauzak ez dira haiek espero bezala gertatuko, eta zailtasunak bata bestearen atzetik azalduko zaizkie. *Pin, Pan eta Pun* lehen irakurleentzako abentura atsegin eta dibertigarri honetan, gainera, animalia espezie horiei buruzko zenbait bitxikeria ikasiko ditugu. Album ilustratuen hizkerara hurbiltzen den komiki bat da, elkarrizketarik gabekoa, narratzailearena baita kontakizunaren ahots bakarra, eta hala, akuarela teknika mistoarekin landutako orrialde goxoak azalduko dizkigu.

ASTIBERRI
astiberri.com
facebook.com/astiberri @astiberri.com @astiberri.infantil astiberri_ediciones
485 kutxatila. 48080. Bilbo • 689 213 317 • prensa@astiberri.com

AtOLOniak berak dionez, inspirazioa hartzen du “alegia klasikoen estetika eta munduetan, abenturetako komiki eta kontakizunetan baita haurtzaroko komikien umore zuzenagoan ere, adibidez, Ibañezena. Juanjo Guarnidoren lanak ere eragin handia izan du nigan. Mahaigainean daukat beti, zeren, batzuetan, komikiak akuarelaz egiteak alferreko esfortzua eman baitezake, eta haren lanak, aldeak alde, merezi duela gogorarazten dit. Jeff Smith ere (*Bone*) aipa nezake, baita Bill Watterson (*Calvin y Hobbes*), Álvaro Ortiz, zeinak txunditu baininduen *Iratxo Txikian* kolorea erabiltzeko duen moduagatik, edo Liniers eta bere goxotasun komikoa. Eta David Petersen! Uste dut haren *Mouse Guard*-ek erein zuela *Pin, Pan eta Pun*-en hazia”.

ATOLONIA (Antonio Ordóñez, Madrid, 1987) Enpresa eta Marketing ikasketak egin zituen unibertsitatean, aldi berean metroan breaking dantzantzen eta kaierak grafitiz betetzen zituela. Haren formakuntza artistikoa akademiatik kanpokoa izan da. Autodidakta izanik, 2019an ekin zion profesionalki ilustrazioari. Album ilustratuen alorrean, haurrentzako bi liburu autoeditatu ditu -*Rexi aprende* (2021) eta *Mi granito de arena* (2020)- eta finalista izan da album ilustratuen Keycolors nazioarteko leihaketan 2022an baita Hola Monstruo argitaletxeko lehiaketan ere, 2023an. *Las diminutas aventuras de Abril* (Edebé, 2025) izan zen berak osotara sorturiko lehen komikia, eta lehen irakurleentzako *Pin, Pan eta Pun* komikia (Astiberri, 2026) dugu haren lanik berriena.

UF UF UF
BIZITZA OSOA KAIOLA BATEAN EMAN IZAN BAZENU...


ZER NAHIKO ZENUKE?
HEGAN EGIN EDO MUNDUA IKUSTERA IRTEN?